# Multidimensional Verdi

En los ambientes musicales cada vez que se escucha a alguien decir *La Novena* la alargada sombra de Beethoven aparece de inmediato. Hay otros compositores de primerísima fila, como Anton Bruckner o Gustav Mahler, cuyas novenas sinfonías tuvieron un papel fundamental en el conjunto de su producción musical, pero *La Novena* de Beethoven, con su "Oda a la alegría", de Friedrich von Schiller incorporada, es por así decirlo la Sinfonía de la Humanidad, el himno de Europa. Llegamos también en estas Semanas Verdi de ABAO-Deusto Forum a la novena edición, con la sensación de habernos acercado a Verdi desde diferentes perspectivas, ampliando de esa manera nuestro conocimiento sobre su música y su personalidad. Cuando finalice esta novena Semana Verdi ya serán medio centenar los conferenciantes que nos han visitado para hablarnos de la vida y milagros, de la música y familia, de las óperas y prioridades artísticas de Giuseppe Verdi. Han venido a Bilbao desde Estados Unidos, Italia, Argentina, Uruguay, Bélgica, Cuba, Costa Rica, Venezuela y, por supuesto, desde los lugares más recónditos de la Península Ibérica. Gracias a ellos admiramos y amamos aún más a Verdi.

La novena Semana Verdi está marcada bajo el signo de la multidimensionalidad. Da una vuelta de tuerca respecto a ediciones anteriores a la hora de buscar el corazón secreto del compositor de muchas de nuestras óperas de cabecera. Abre el fuego la catedrática Begoña Lolo, directora del Centro Superior de Investigación y Promoción de la Música de la Universidad Autónoma de Madrid, del que depende la colección de estudios y trabajos científicos agrupados bajo la denominación *Música y musicología*, y cuyo volumen "Música, Ciencia y Pensamiento en España e Iberoamérica durante el siglo XX" es ya una referencia en el sector, como lo son los concienzudos trabajos de la catedrática de ascendencia bilbaína sobre Don Quijote y la música. Desde su perspectiva científica disertará sobre el tema de Verdi y la investigación.

Desde *Las vísperas sicilianas a Macbeth*, pasando por *Don Carlos*, *Otello* o *Aida*, Verdi utilizó música bailable o de *ballet* en varias de sus óperas. Orquestas como la del Metropolitan de Nueva York, con directores como James Levine, incluso han dedicado grabaciones monográficas a esta faceta de la producción verdiana. El profesor Roberto Giovanardi es un auténtico erudito en estos temas. Director de la Asociación de teatros de la Emilia Romagna en Italia, su presencia en lugares carismáticos de la danza como San Petersburgo es continua, siendo profundamente admirado por sus aportaciones. Incluso participó como distinguido orador en los actos de inauguración del espectacular nuevo teatro de la Ópera de Astaná en Kazajistán.

Ya en enero de 2015, Víctor Sánchez, profesor de la Universidad Complutense de Madrid nos deleitará sobre el tema de las relaciones con España de Giuseppe Verdi. De su viaje por Madrid y Andalucía; de la elección de autores o dramaturgos españoles para algunas de sus óperas, como Antonio García Gutiérrez o el Duque de Rivas; de las citas de lugares de nuestra geografía como Zaragoza, Sevilla o Bilbao. Víctor Sánchez lleva muchos años con una dedicación permanente a este tipo de correspondencias y ha escrito el libro *Verdi y España*, todo un descubrimiento sobre un aspecto de la vida del compositor que ilumina sobre muchas de sus decisiones.

La afición gastronómica de Verdi no ha sido tan divulgada como la de Rossini, seguramente porque el cisne de Pesaro tenía más fantasía creadora en este campo y el austero Verdi destacaba en su admiración por los productos naturales comestibles de la tierra. Sin embargo se ha escrito en la Editoriale Giorgio Mondadori un libro de varios autores sobre *Cenando con Verdi*, con ediciones en italiano e inglés y prólogo de Angiolo Carrara Verdi, y hasta se han editado ensayos, de Francesco Attardi Anselmo y Elisa de Luigi en la serie *Ópera gastronómica* de Siglo XXI Editores, como "Un festín para Lady Macbeth", la protagonista de la ópera *Macbeth*, o "Un festín para Aida". Reunir en la misma mesa académica a dos de los mejores cocineros del mundo, Joan Roca y Andoni Luis Aduriz, es un acontecimiento. ¿Qué puede pasar este día? Cualquier cosa y, sin duda, sabrosona. Ya en ABAO se tiene el precedente de las recetas que preparó para su publicación Ferran Adrià a propósito de la ópera *Falstaff*.

El musicólogo y ensayista José Luis Téllez no necesita presentación. Su apabullante caudal de conocimientos está fuera de dudas, como en las publicaciones del proyecto *Tutto Verdi* ha quedado sobradamente demostrado en sus ensayos sobre *Il trovatore* y *Falstaff* publicados en los libros *Stride la vampa* y *Una lama de Bilbao*. Se conoce menos de Téllez su registro cinematográfico, salvo en los círculos especializados, siendo como es una auténtica autoridad en la materia desde hace décadas. Su último libro, *Paisajes imaginarios*, es un ejemplo de ello. Con una cita muy sugerente sobre Verdi comienza la película *Novecento*, de Bertolucci. Pero no les adelantamos nada más. Se van a llevar más de una sorpresa al conocer cómo el cine ha recuperado y utilizado la imagen de Verdi.

Cierra el ciclo una persona muy entrañable para todos nosotros: Fernando Bayón. Por su condición de investigador de la Universidad de Deusto, por su fidelidad incondicional a estas Semanas Verdi, por su contrastada sabiduría sobre la ópera. Bayón es de la casa. En realidad, de las dos casas, la universitaria y la operística. Qué mejor representante para cerrar estas jornadas multidimensionales. Las novenas, ya. Con permiso de Beethoven, Verdi podría sentirse orgulloso de esta "Novena" si levantase la cabeza.

## Programa

**1 de octubre, miércoles a las 19.30 h.**

**Begoña Lolo**
"Verdi y la investigación musicológica"

**10 de noviembre, lunes a las 19.30 h.**

**Roberto Giovanardi**
"Verdi y el *ballet*"

**8 de enero, jueves a las 19.30 h.**

**Víctor Sánchez**
"Verdi y España"

**Enero, fecha por determinar**

**Coloquio entre Andoni Luis Aduriz, Joan Roca y Juan Ángel Vela del Campo**
"Verdi y la gastronomía"

**14 de abril, martes a las 19.30 h.**

**José Luis Téllez**
"Verdi y el cine"

**28 de mayo, jueves a las 19.30 h.**

**Fernando Bayón**
"Verdi y la arquitectura teatral"

## Información

**DeustoForum**
Avda. de las Universidades, 24
48007 Bilbao
Tel.: 944 139 020
deusto.forum@deusto.es

# Verdiren IX. astea




tuttoVerdi

ABAO OLBE
1953-2013
ABAO-OLBE

Bilboko opera guztion esku
la ópera de Bilbao al alcance de todos

DeustoForum

# Alderdi askoko Verdi

Musika arloan norbaiti *Bederatzigarrena* entzuten zaion bakoitzean, berehala agertzen da Beethovenen itzal luzanga. Badira lehenengo mailako beste konpositore batzuk, Anton Bruckner edo Gustav Mahler esaterako, bederatzigarren sinfonia garrantzizkoa izan zutena euren musika produkzioaren barruan; baina Beethovenen *Bederatzigarrena*, "Alaitasunaren edo Bozkarioaren Oda" izeneko piezarekin (Friedrich von Schiller-ek erantsia), Gizateriaren Sinfonia da nolabait esateko, Europako ereserkia. OLBEk eta Deusto Forumek Verdiri eskainitako asteetan ere bederatzigarren ediziora iritsi gara, Verdirengana ikuspegi askotatik hurbildu garelako sentsazioaz, bere musikari eta nortasunari buruz geneukan ezagutza zabalduta. Verdiri eskainitako bederatzigarren aste hau amaitzen denean, berrogeita hamar izango dira Giuseppe Verdiren bizitza eta gertakariak, musika eta familia, operak eta lehentasun artistikoak jorratzeko bisitatu gaituzten hizlariak. Hainbat tokitatik etorri dira: Bilbo, Estatu Batuak, Argentina, Uruguai, Belgika, Kuba, Costa Rica, Venezuela eta, jakina, Iberiar penintsulako tokirik ezkutuenetatik. Haiei esker miretsi eta maite dugu gehiago Verdi.

Verdiren bederatzigarren asteak alderdi askotako ikuspegiak izango ditu ezaugarri. Beste buelta bat emango die aurreko edizioei, goiburuko ditugun opera askoren konpositorearen bihotzean bilatzeari dagokionez. Begoña Lolo katedradunak, Madrileko Unibertsitate Autonomoko Musika Ikerketa eta Sustapeneko Goi Zentroko zuzendariak, emango dio hasiera. Zentro horren ardurapekoa da *Música y musicología* izenburupean bildutako ikerketa eta lan zientifikoak. Bilduma horretakoa dugu "Música, Ciencia y Pensamiento en España e Iberoamérica durante el siglo XX", sektorean erreferentziazko lana, baita On Quixote eta musikari buruz bilbotar jatorria duen katedradunak idatzitako lan zehatza ere. Bere ikuspegi zientifikoa ardatz harturik, Verdi eta ikerketa jorratuko ditu.

*Siziliar bezperetatik Macbeth*-era, *Don Carlos, Otello* edo *Aida* ahaztu gabe, Verdik dantzatzeko musika edo baletekoa erabili zuen hainbat operatan. New Yorkeko Metropolitan orkestra bezalakoek, James Levine bezalako zuzendariekin, grabazio monografikoak ere egin dituzte, Verdiren ekoizpenaren alderdi horri eskainita. Roberto Giovanardi irakaslea benetan jantzia da gai horietan. Italiako Emilia Romagnako antzokien elkarteko zuzendari den horren presentzia etengabea da dantzari lotutako toki esanguratsuetan eta benetan miresten dituzte berak egindako ekarpenak. Kazakhstaneko Astanako Opera antzoki berri ikusgarriaren inaugurazioko ekitaldietan ere hizlari ospetsu gisa parte hartu zuen.

2015eko urtarrilean, Víctor Sánchezek, Madrileko Unibertsitate Complutenseko irakasleak, Giuseppe Verdik Espainiarekin izan zituen harremanak hartuko ditu mintzagai, denon gozamenerako. Madrildik eta Andaluziatik egin zuen bidaia; espainiar autore edo dramaturgoak aukeratzea opera batzuetarako (Antonio García Gutiérrez edo Rivaseko Dukea); gure geografiako toki batzuen aipamenak (Zaragoza, Sevilla edo Bilbo). Víctor Sánchezek hainbat urte darama etengabe halako loturei erreparatzen eta liburu bat ere idatzia du, *Verdi y España*, konpositorearen bizitzaren alderdi aurkitu berria eta bere erabaki askoren ingurukoak argitzen dituena.

Verdiren zaletasun gastronomikoa ez da Rossinirena adina zabaldu, seguru asko Pesaroko zisneak irudimen sortzaile handiagoa zuelako arlo horretan eta Verdi soilak lurreko produktu natural jangarriengatiko zaletasuna zuelako ezaugarri. Hala ere, Editoriale Giorgio Mondadorin hainbat autoreren artean idatzi da *Cenando con Verdi*. Italieraz eta ingelesez izan ditu argitalpenak, Angiolo Carrara Verdiren hitzaurrearekin; eta saioak ere argitaratu dira, Francesco Attardi Anselmoren eta Elisa de Luigiren eskutik, Siglo XX Editores argitaletxeko *Ópera gastronómica* sailean: "Un festín para Lady Macbeth", *Macbeth* operako protagonista gogoan zutela; edo "Un festín para Aida", esate baterako. Mahai akademiko beraren inguruan munduko bi sukaldaririk onenetarikoak, Joan Roca eta Andoni Luis Aduriz, elkartzea aparteko gertakaria da. Zer gerta daiteke orduan? Edozein gauza eta, zalantzarik gabe, gozo eta mamitsua. OLBEn badugu aurrekari bat: Ferran Adriàk *Falstaff* opera zela eta argitaratzeko prestatu zituen errezetak.

José Luis Téllez musikologo eta saiogileak ez du aurkezpenik behar. Inork ez du zalantzan jartzen bere jakintza-iturri oparo eta txundigarria; halaxe erakutsi du, bikain erakutsi ere, *Tutto Verdi* proiektuaren barruko argitalpenetan, *Il trovatore* eta *Falstaff* operei buruzko saioetan, *Stride la vampa* eta *Una lama de Bilbao* liburuetan argitaraturikoetan. Gutxiago ezagutzen da Téllezen erregistro zinematografikoaz, inguru espezializatuetan izen handia izan arren duela hainbat hamarkadatatik. Azkenengo argitaratu duen *Paisajes imaginarios* liburua da horren erakusgarri. Verdiri buruzko aipu iradokigarri batekin hasten da Bertolucciren *Novecento* filma. Baina ez dizuegu gehiago aurreratuko. Ustekabe bat baino gehiago izango dituzue ikusirik zineak zelan berreskuratu eta erabili duen Verdiren irudia.

Zikloari amaiera emateko, bihotz-bihotzekoa dugun pertsona bat hurreratuko zaigu: Fernando Bayón. Bihotzekoa dugu Deustuko Unibertsitateko ikertzaile izateagatik, Verdiri eskainitako asteetan erakutsi duen fideltasunagatik, operaren inguruan duen ezagutza frogatuagatik. Bayón etxekoa dugu. Berez, bi etxeetakoa, unibertsitatekoa eta operakoa. Nor ordezkari hoberik bera baino, alderdi asko jorratzen duten jardunaldioi amaiera emateko! Bai, bai, bederatzigarrenak. Beethovenen baimenarekin, Verdi harro sentituko litzateke "Bederatzigarren" honekin, burua altxatuko balu.

## Egitaraua

**Urriak 1, asteazkena 19.30tan**

**Begoña Lolo**
"Verdi y la investigación musicológica"

**Azaroak 10, astelehena 19.30tan**

**Roberto Giovanardi**
"Verdi y el *ballet*"

**Urtarrilak 8, osteguna 19.30tan**

**Víctor Sánchez**
"Verdi y España"

**Urtarrilan, eguna zehazteko**

**Andoni Luis Aduriz, Joan Roca eta Juan Ángel Vela del Campo-ren arteko solasaldia**
"Verdi y la gastronomía"

**Apirilak 14, asteartea 19.30tan**

**José Luis Téllez**
"Verdi y el cine"

**Maiatzak 28, osteguna 19.30tan**

**Fernando Bayón**
"Verdi y la arquitectura teatral"

## Informazioa

**DeustoForum**
Unibertsitate etorbidea, 24
48007 Bilbao
Tel.: 944 139 020
deusto.forum@deusto.es

# IX Semana Verdi




tuttoVerdi

ABAO OLBE
1953-2013
ABAO-OLBE

Bilboko opera guztion esku
la ópera de Bilbao al alcance de todos

DeustoForum